

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

4558

118/2022 DEKRETUA, urriaren 11koa, Ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntzak arautzen dituena.

Eusko Jaurlaritzak, hiru hamarkada baino gehiagoan, ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustu estrategikoari eutsi dio, ongizate sozioekonomikoa sortzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko egiten duten funtsezko ekarpenean oinarrituta. Apustu hori Jaurlaritzaren politiketan eta zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-planetan islatu da, baita erabili dituen baliabide ekonomiko-koen eta giza baliabideen multzoan ere.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030 plan berriak (ZTBP Euskadi 2030) berrikuntzaren arloko Europako eskualde aurreratuenen artean kokatu nahi du Euskadi, bizi-maila eta enpleguaren kalitatea handituta. XII. Legegintzaldian onartutako Gobernuaren lehen plan estrategikoa da, eta 2021etik 2030era bitartean 18.600 milioi euro inbertitzea aurreikusten da.

ZTBP Euskadi 2030 Euskadi Basque Country 2030 Agendaren barruan dago. Agenda horrek Euskadik Nazio Batuen garapen jasangarrirako helburuekin duen konpromisoa eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Giza Garapen Jasangarriaren estrategia biltzen ditu. Horrekin batera, nazioarteko hainbat erreferentziarekin ere lerrotatzen da, bereziki, Horizonte Europa Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru Programarekin, Europa Digitala Programarekin eta Europako Itun Berdearekin.

Plan berriak oinarri hauek ezartzen ditu: bikaintasun zientifikoa, lidergo teknologiko industrialia eta berrikuntza irekia, bai eta talentua ere, beharrezkoa den elementu nagusi gisa. Gainera, espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategian sakontzen du, eta, horren ondorioz, hiru lehentasun estrategikoak birdefinitu dira: 1) Industria adimenduna; 2) Energia garbiagoak eta 3) Osasun pertsonalizatua, baita lau aukera-lurraldeak ere: 1) Elikadura osasungarria; 2) Ekoberrikuntza; 3) Hiri jasangarriak eta 4) Euskadi sortzailea.

ZTBP Euskadi 2030 planaren berrikuntza nagusien artean dago «zeharkako trakzio-ekimenak» kontzeptua; hau da, RIS3 arloen arteko lankidetzak sustatuko duen tresna, eremu estrategiko zehatzetan. Horren bidez, Euskadik trantsizio teknologiko-digitalari, energetiko-klimatikoari eta sozial eta sanitarioari aurre egin ahal izango dio. Hasteko, zeharkako hiru trakzio-ekimen proposatzen dira, «Zahartze Osasuntsua», «Mugikortasun Elektrikoa» eta «Ekonomia Zirkularra» arloetan.

Zeharkako trakzio-ekimenen helburu nagusia euskal gizartearentzat emaitza hautemangarriak eta agerikoak lortuko dituzten ikerketa eta garapenerako trakzio-proiektu kolaboratibo berriak bultzatzea da. Trakzio-proiektu horiek errazago identifikatzeko, tresna berri baten euskarria behar da, laguntza-programa baten euskarria, zeinaren baldintzak dekretu honetan arautzen baitira.

Dekretu honen babesean egiten diren laguntza-deialdiak dagokion dirulaguntzen plan estrategikoan jasota egongo dira.

Genero-berdintasuna Eusko Jaurlaritzaren politika publiko guztietan jasotzen den zeharkako konpromisoa da, eta, beraz, ZTBP Euskadi 2030 planean ere jasota dago. Ildo horretatik, estrategia horren zutabe estrategikoetako bat talentua prestatzea, garatzea, sustatzea eta erakartzea da, eta haren ezarpenak genero-berdintasuna sustatzeko ildo bat aurreikusten du zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren eremuan. Era berean, planaren helburu operatibo handienetako

bat talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea da, batez ere emakumeen artean. Dekretu honetan konpromiso hori betetzen da, laguntza-programan aurkeztu diren eskabideak ebaluatzeko irizpideetan genero-ikuspegia txertatuz.

Euskal gizartearentzat emaitza hautemangarriak eta agerikoak lortuko dituzten zeharkako trakzio-proiektu kolaboratibo berriak bultzatzeko asmoarekin, eta bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen IV. tituluarekin (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testu bategina) eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin (38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatua), ZTBP Euskadi 2030 planaren zeharkako trakzio-ekimenen esparruan, ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntza-programa hau garatzeko beharra ezarri da.

Ondorioz, lehendakariaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko urriaren 11n egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Laguntzen xedea eta aplikatu beharreko araudia.

1.– Dekretu honen xedea da «Zahartze Osasuntsuaren», «Mugikortasun Elektroaren» eta «Ekonomia Zirkularraren» esparruetan ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntza-programa arautzea; horretarako, laguntzen erakunde eskaerazkoak aurkeztutako proiektuak trakzio-proiektuetan integratuko dira, zeharkako trakzio-ekimen bakoitzerako ezarritako erronkei eta helburuei erantzun ahal izateko.

2.– Araudi honek Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 25. artikuluari helden dio. Erregelamendu horren bidez, ikerketa- eta garapen-proiektuetarako zenbait laguntza barne-merkatuarekin bateragarri deklaratu dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek aplikatuz.

2. artikulua.– Nahitaezko betekizunak.

1.– Entitate eskatzaileek zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboetan sartzeko aurkeztu dituzten proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte, haien diseinua diruz lagunduko bada:

a) Proiektua zeharkako zein trakzio-ekimenetara aurkeztu den, harentzat ezarritako erronka espezifikoetatik gutxienez 3 barne hartzea irismen tematikoari dagokionez («Zahartze Osasuntsua», «Mugikortasun Elektroa» eta «Ekonomia Zirkularra»). Erronka horiek dekretu honen eranskinean daude jasota.

b) Gutxienez 4 milioi euroko guztizko aurrekontua «Mugikortasun Elektroa» eta «Ekonomia Zirkularra» proiektuetarako, eta 0,5 milioi eurokoa «Zahartze Osasuntsua» proiektuetarako.

c) Gutxienez 3 erakundek parte hartu behar dute, eta horien artean, gutxienez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile zientifiko-teknologiko bat egon behar da.

d) Zahartze osasuntsuko proiektuetan, Euskal Osasun Sistemako erakunde batek parte hartu beharko du, gutxienez. Erakunde hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarekoa balitz, aurreko betekizuna ere beteko luke.

2.– Diruz lagunduko diren diseinu-jarduerek laguntza-eskaera aurkeztu ondorengo hasiera-data izango dute, laguntza-programak eragin sustagarria izan dezan bermatzeko.

3.– Diruz lagunduko diren diseinu-jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharko dira oso-osorik. Nolanahi ere, jarduera horien zatiren bat azpikontratatu ahal izango da, erkidego barruan edo kanpoan.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta laguntzen izaera.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzetarako baliabide ekonomikoak dagozkien deialdien bidez esleituko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legean horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira.

2.– Programa honetan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta lehia bidezko konkurrentzia-prozeduraren arabera emango dira. Beraz, jasotzen diren eskabide guztiak aldi berean ebatziko dira zeharkako trakzio-ekimen bakoitzerako, eskatutako dokumentazioa eskuratu ondoren.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Erakunde hauek jaso ahal izango dituzte dekretu honetan araututako laguntzak:

a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratuta dauden eta horretarako egiaztatuta dauden eragile zientifiko-teknologikoak, bat etorriaz Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuan, dekretu hori hirugarren aldiz aldatzen duen urtarrilaren 26ko 21/2021 Dekretuan edo bi horiek ordeztuko araudian ezarritakoarekin.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzailerak.

c) Enpresak, haien tamaina edo jarduera-sektorea edozein dela ere.

d) Elkarte edo fundazio gisa legez eraturako irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

e) Administrazio publikoei lotuta edo haien mendean dauden eta nortasun juridiko propioa duten entitate eta sozietate publikoak.

2.– Ezin izango dira dekretu honetan araututako laguntzen onuradun izan:

a) Krisian dauden enpresak eta entitateak, Europako Batzordeak emandako definizioaren arabera (Krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko gidalerroak ezartzen dituen Batzordearen 2014/C 249/01 Komunikazioa, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2014ko uztailaren 31n).

b) Laguntzak berreskuratzeko aginduren baten mende dauden entitateak, Europako Batzordearen aurretiatzko erabaki batek laguntza bat legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo duelako.

c) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aipatutako egoeraren batean dauden pertsonak edo entitateak.

d) Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan aipatutako egoeraren batean dauden pertsonak edo entitateak.

e) Sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten entitateak, dagokion zeha-

penean ezarritako aldiaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen arabera.

f) Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean eduki behar duten baina halakorik ez duten enpresak, bai eta 50 langiletik gorako enpresak ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurriak ezarri dituztela, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoaren arabera, betiere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen ezarritakoarekin bat.

3.– Onuradun izateko, entitateek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egotea, edo, irabazi-asmorik gabeko enpresak edo entitateak direnean, Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizpen-instalazio bat izatea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetatik zuzenean garatzea diruz lagun daitezkeen jarduerak.

c) Nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun nahikoa izatea, eta dirulaguntza publikoak lortzeko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin edo beste ente publiko batekin kontratuak egiteko inolako debeku edo desgaikuntzarik ez izatea.

d) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

e) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.

f) Fundazioek Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoa bete beharko dute, xedapen horretan ezartzen baita, hain zuzen ere, fundazioak lege horretan esaten denera egokitze beharra.

g) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratutako eragile zientifiko-teknologikoen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren 23.2 g) artikuluan xedatutakoa bete beharko dute. Artikulu horrek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legearen betebeharrak betetzeko galdatzen die Administrazioaren laguntzak kontratatzen, adosten edo jasotzen dituzten entitateei, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 42.2 artikuluan xedatutakoaren arabera horretara behartuta dauden entitateei, berriz, berdintasun-plan bat izateko.

4.– Onuradun izateko baldintzak dirulaguntzaren indarraldi osoan mantendu beharko dira.

5.– Aurreko apartatuetan aurreikusitako betebeharrak honela egiaztatuko dira:

a) Ofizioz egiaztatuko da, elkarreragingarritasun bidez, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakoetan, kasuan kasuko organo eskudunak emandako administrazio-ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

b) Entitate eskatzailea fundazio bat bada, artikuluko honen 3. apartatuko f) letran aurreikusitako betekizuna ofizioz egiaztatuko da.

c) Artikulu honen 3. apartatuko e) letran jasotako betekizuna eskabidearekin batera aurkeztuko den erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da.

d) Gainerako baldintzak eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agirien bidez egiaztatuko dira.

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta haiek gauzatzeko epea.

1.– Dirulaguntza jaso ahal izango dute entitate eskatzaileek egindako jarduerak, baldin eta dekretu honen 2. artikuluan ezarritako baldintzak beterik ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboa diseinatzera edo kontzeptualizatzerara bideratuta badaude. Hauek dira diruz lagun daitezkeen jarduerak:

a) Gaiaren egungo egoeraren azterketa.

b) I+G+Bren bideragarritasun-azterketa.

c) Negozio-ereduaren azterketa.

d) I+G+B ibilbide-orria egitea.

e) Proiektuaren partzuergoa eraikitzea.

f) Proiektuen proposamena edo proposamenak egitea, finantzaketa-programetan aurkezteko.

2.– Dirulaguntzaren xede den jarduera eskabidea aurkezten den egunetik dirulaguntza ebatzi eta 12 hilabetera arte garatu ahal izango da.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira dekretu honen 5. artikuluan deskribatutako jarduera diruz lagungarriekin lotura zuzena dutenak, zehazki honako hauek:

a) Proiektuaren diseinuan inplikaturako entitate eskatzailearen langileen zuzeneko kostuak. Zuzeneko kostu horien eta proiektuan lan egindako orduen arteko zati proportzionala kalkulatuko da, barnean hartuta langileen ordainsari osoak (mozkinetako partaidetzak, bidaiengatiko kalte-ordainak eta dietak, ostatua eta mantenua izan ezik) eta entitatearen konturako Gizarte Segurantzako kotizazioak (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen ondorioz salbuetsitako hobariak, murrizketak edo enpresa-kuotak izan ezik).

b) Aurreko paragrafoko zuzeneko kostuei lotuta dauden entitatearen zeharkako kostuak. Zeharkako kostu horiek gehienez ere langileen zuzeneko kostuen % 25 izango dira. Honako kontu-zenbaki eta kontabilitate-kontzeptu hauei dagozkien zeharkako gastuak egotzi ahal izango dira: 621 Errentamenduak eta kanonak; 622 Konponketak eta kontserbazioa; 623 Profesional independenteen zerbitzuak (entitatearen zerbitzu orokorrei lotutakoak soilik); 624 Garraioa (salmenten garraioa izan ezik); 625 Aseguru-primak; 628 Hornidurak; 629 Bidaia-gastuak (entitatearen zerbitzu orokorrei lotutakoak soilik); 629 Beste gastu eta zerbitzu batzuk (bidaiak izan ezik); 64 Egiturazko langileen kostua (entitatearen zerbitzu orokorrei lotutakoak soilik) eta beste gastu sozial batzuk eta 68 Ibilgetu garbiaren amortizazioa (diruz lagundu gabea, ekitaldiko gastu guztien % 5eko mugarekin).

c) Proiektuaren diseinuaren zati oso espezializatuak eta/edo I+Gko osagai bat dutenak azpi-kontratutzea. Ezagutza teknikoak dituzten aholkularitza-enpresek edo zerbitzu baliokideek eskain ditzakete, edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek, baldin eta soilik proiektu-proposamena egiteko erabiltzen badira.

2.– Entitate publikoek edo nagusiki partaidetza publikoa duten entitateek Eusko Jaurlaritzako beste sail baten edo sektore publikoko beste entitate baten finantzaketa badute, zeharkako kostua

soilik aplikatu ahal izango dute langileen kostuaren kontzeptuan, plantillako langileen edo estatu-tupeko langileen kasurako; ezin izango da finantzatu, inola ere, langile horien zuzeneko kostua. Proiektua egiteko berariaz kontratatutako langileen kasuan, haien zuzeneko kostua soilik lagunduko da diruz.

3.– Dirulaguntzaren xede diren jarduerak azpikontratatu ahal izango dira, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 80 arte eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29., 30. eta 31. artikuluetan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak errespetatuz.

4.– Dirulaguntzaren xede diren kostuen kontzeptutik kanpo geratzen dira balio erantsiaren gaineko zerga eta gainerako zeharkako zergak, horiek entitate onuradunarentzat kengarriak direnean. Entitate publikoen kasuan, BEZa hautagarritzat joko da, baldin eta entitate eskatzailea salbuetsita bada go edo BEZaren araubidearen mende ez bada go.

7. artikulua.– Laguntzen intentsitatea eta muga.

1.– Eskabidean, oinarritzko ikerketari, ikerketa industrialari eta garapen esperimentalari dagozkien zeharkako proiektu kolaboratiboa diseinatze eta egiteko jarduerak konbinatu ahal izango dira, bakoitzari dagokion ehunekoa adierazita. Laguntzaren gehieneko intentsitatea honako hau izango da:

a) Oinarritzko ikerketako jarduerari dagokienez, zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboa diseinatze eta egiteko kostuen % 100, gehienez.

b) Ikerketa industrialeko (edo ikerketa aplikatuko) jarduerari dagozkien kostuen % 50, gehienez.

c) Kostuen % 25, gehienez, garapen esperimentaleko proiektua (edo garapen teknologikoko proiektua) bada.

2.– Laguntzaren gehieneko intentsitatea ehuneko 15 puntu handitu ahal izango da aurreko b) eta c) kasuetan, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

a) Proiektuak berekin ekartzea enpresa baten eta ikerketarako eta ezagutza zabaltzeko organismo baten edo batzuen arteko lankidetzara eraginkorra, betiere organismo horiek, gutxienez, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 10 beren gain hartzen badute eta beren ikerketaren emaitzak argitaratzeko eskubidea badute.

b) Proiektuaren emaitzak zabalkunde zabala izatea hitzaldien, argitalpenen, irispide libreko oinarrien edo doako edo iturri irekiko programa informatikoen bidez.

3.– Eskaera bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga 25.000 euro artekoa izango da.

4.– Zeharkako trakzio-ekimen bakoitza finantzatzera bideratutako deialdiaren zuzkidura ekonomikoa nahikoa ez bada eskaera guztiei erantzuteko aurreko paragrafoan ezarritako baldintzetan, entitate onuradunen artean hainbanatuko da dagokion ekimeneko dirulaguntzetarako gehieneko zenbatekoa, proiektu eskatzaileak ebaluazioan lortutako puntuazioaren arabera.

8. artikulua.– Deialdia.

1.– Dekretu honetan araututako laguntzak aldizkako deialdi publikoaren bidez iragarriko dira, eta publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik

ezaren printzipioen arabera emango dira. Dirulaguntzak lehia bidezko konkurrentzia-prozeduraren bidez ebatziko dira.

2.– Deialdia Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiko titularraren ebazpen baten bidez egingo da.

3.– ZTBP Euskadi 2030 planean ezarritako zeharkako trakzio-ekimen bat edo batzuk barne hartu ahal izango dira deialdian, «Zahartze Osasuntsuaren», «Mugikortasun Elektrikoaren» eta «Ekonomia Zirkularraren» esparruei dagozkienak.

4.– Deialdian zehatz adieraziko dira zeharkako trakzio-ekimen bakoitzerako dirulaguntzen aurrekontu-kontsignazioen zenbatekoa eta ebaluazio-organoetako kideen izenak. Era berean, eskabideak aurkezteko epea eta modua zehaztuko dira.

5.– Deialdia egin ondoren helburu horretarako kreditu osagarriak badaude, deialdiaren zuzkidura handitu ahal izango da, Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiko titularraren ebazpen baten bidez, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko baita.

6.– Dirulaguntza-lerro bakoitzari esleitutako zuzkidurak ezertan eragotzi gabe, eskabiderik ez dagoelako, eskabideek baldintzak betetzen ez dituztelako edo eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzen ez dutelako lerro horietako batean ezarritako zuzkidura ekonomikoa agortzen ez bada, Ebaluazio Batzordeak beste lerro batean ezarritako zuzkidura handitzea proposatu ahal izango du, betiere lerro hori oraindik ebatzi gabe badago.

9. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.– Entitate interesdunek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dituzte eskabideak. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sartu beharko da, dagokion deialdi-ebazpenean zehazten den helbidearen bidez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dauden formularioak eta ereduak erabili beharko dira, eta bertan ezarritako jarraibideak bete.

2.– Entitate batek eskabidea aurrez aurre aurkezten badu, elektronikoki aurkezteko betebeharra duela adieraziko zaio, eta ohartaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.4 artikuluan xedatutakoaren arabera. Ondorio horietarako, zuzenketa egin den eguna hartuko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

3.– Eskabidea egin ondorengo izapideak bitarteko elektronikoa erabiliz bakarrik egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa bidez.

4.– Laguntza-eskabidea aurkezturik, entitate eskatzaileak baimena ematen dio organo emaitzari zuzenean egiazta dezan laguntzak eskatzen dituzten entitateek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela. Egiaztapen hori organo kudeatzaileak egingo du, entitate eskatzaileen baimenik behar izan gabe, hala ezarrita baitago uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan (Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duena) eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duena). Hala ere, entitate eskatzaileak berriaz ukatu ahal izango du baimena, eta, orduan, betebehar horien ziurtagiria aurkeztu beharko du, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

5.– Eskabidea elektronikoki sinatu beharko du entitatearen legezko ordezkariak. Gainera, diseinatu nahi den zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboaren proposamenari buruzko dokumentazio hau erantsi beharko da:

a) Proiektuaren memoria, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen ereduari jarraitu beharko diona, eta, gutxienez, honako informazio hau emango duena:

- Proiektuaren izenburua.
- Zeharkako zein trakzio-ekimenetara aurkeztu den (zahartze osasuntsua, mugikortasun elektrikoa edo ekonomia zirkularra).
- Deskribapena eta lortu beharreko emaitza nagusiak.
- Proiektuaren gutxi gorabeherako dimentsioa (eurotan kalkulaturako aurrekontua, guztira).
- Zeharkako trakzio-ekimenaren erronkei eta helburuei egingo zaien ekarpena.
- Proiektuan sartutako I+G+B jarduerak.
- Eragin sozioekonomiko potentziala (zeharkako trakzio-ekimenaren erronkei eta helburuei egingo zaien ekarpenaz harago).
- Proiektuan parte hartzen duten entitateen partzuergoa.
- Genero-ikuspegia txertatzea.

b) Proiektua diseinatzeko behar diren eta dirulaguntza jaso dezaketen gastuen zenbatespena, langileen barne-kostuak eta kanpoko azpikontratazio-gastuak bereizita, eta oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko jarduerari dagozkien gastuak zehaztuta.

6.– Eskabideak erantzukizunpeko adierazpenei buruzko atal bat izango du (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri egongo diren eredu arabera), eta, bertan, entitate eskatzaileak gutxienez informazio hau adierazi beharko du:

a) Laguntza-programarako proposatzen den zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboa diseinatzeko beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako eta/edo haiek emandako laguntzak.

b) Proiektua diseinatzeko behar diren gastuen zenbatespena entitatearen kontabilitate-arauei eta laguntza-programa hau arautzen duen Dekretuan ezarritako arauari jarraituz egin dela.

c) Entitateak ez duela dirulaguntza publikoak lortzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, eta ez daukala horretarako desgaitasun dakarren legezko inolako debekurik, sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik ezarritako debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko martxoaren 3ko 1/2022 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

d) Entitatea ez dagoela Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan aipaturako ezein egoeratan.

e) Entitateak egunean dituela dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak.

7.– Laguntza-eskabidea eta eskatutako dokumentazioa entitate eskatzaileak aukeratzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira. Era berean,

laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

10. artikulua.– Eskabideak egiaztatzea eta akatsak zuzentzea.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plana bultzatu eta koordinatzeko eskumena duen organoari dagokio eskabideek ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta dekretu honen 2. eta 9. artikuluetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu dutela egiaztatzea.

2.– Eskabidea osorik bete ez bada, edo dekretu honen 9. artikuluan zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, entitate eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta organo eskudunak horri buruzko ebazpena emango du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.

11. artikulua.– Eskabideak ebaluatzeko organoak.

1.– Hiru ebaluazio-organoko egongo dira, ondorio horietarako sortuak, ZTBP Euskadi 2030 planean ezarritako zeharkako trakzio-ekimenerako bakoitzerako bat.

2.– Ebaluazio-organoei dagokie aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea, bai eta proiektu eskatzaileak integratzearen ondorioz sortzen diren zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiiboak onartzeko proposamenak egitea ere.

3.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatua izango da hiru organoen burua.

4.– Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko martxoaren 3ko 1/2022 Legea betez, ebaluazio-organoen emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izateko ahalegina egingo da. Horretarako, aipatutako legearen laugarren artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

5.– Ebaluazio-organoen kideak izendatzeko orduan, kontuan hartuko da hizkuntza-gaitasun nahikoa izatea Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan. Ebaluazio-organoen kideek hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute beren jarduketetan. Euskararen erabilerearen normalizazioa bermatzeko, ebaluazio-organoen kideak hala erabakitzen duenean, deialdiak, gai-zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak, oro har, euskaraz izapidetu ahal izango dira. Bestela, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

6.– Ebaluazio-organoen kideak izango dira:

a) «Zahartze Osasuntsua» zeharkako trakzio-ekimenerako: Osasun Saileko bi pertsona, Osasun Sailburuordetzaren ordezkari gisa; Bioef-en (Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Eusko Fundazioa) ordezkari bat, eta Lehendakarietzako ordezkari bat, zeinak idazkari-lanak egingo baititu.

b) «Mugikortasun Elektrikoa» zeharkako trakzio-ekimenerako: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko bi pertsona, Industria Sailburuordetzaren eta Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzaren ordezkari gisa; SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren ordezkari bat; EEE-Energiaren Euskal Erakundearen ordezkari bat, eta Lehendakarietzako ordezkari bat, zeinak idazkari-lanak egingo baititu.

c) «Ekonomia Zirkularra» zeharkako trakzio-ekimenerako: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko bi pertsona, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzaren eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren ordezkari gisa; SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren ordezkari bat; IHOBE-Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren ordezkari bat, eta Lehendakartzako ordezkari bat, zeinak idazkari-lanak egingo baititu.

7.– Zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboetan integratzeko eskabideen eta proposamenen azterketa eta ebaluazio teknikoak dagokion ebaluazio-organoak egingo du, eta bulego tekniko baten laguntza izango du. Bulego hori trakzio-ekimen bakoitzaren gaian adituak diren pertsonen osatuko dute. Ebaluazio-organoek prozedura ebazteko proposamen arrazoituak aurkeztuko dizkiote ebazpena emango duen organoari.

8.– Ebaluazio-organoak balio osoz eratzeko, bilkurak egiteko, eztabaidak egiteko eta erabakiak hartzeko, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria bertan egotea, eta gainerako kideetatik gutxienez pertsona bat gehiago egotea. Ebaluazio-organoen funtzionamenduari dagokionez, atal honetan aurreikusi ez den guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulua eta hurrengoak aplikatuko dira, osagarri gisa.

9.– Proposamenak ebaluatzeko eta zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak eratzeko prozesuan, ebaluazio-organoek entitate eskatzaileei gomendatu ahal izango diete proiektuetan aldaketak egitea, dagokion zeharkako trakzio-ekimenaren helburuetara hobeto egokitzeko.

12. artikulua.– Ebaluazio-irizpideak eta zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboetan integratzekoak.

1.– Hauek dira eskabideak ebaluatzeko irizpideak, zeharkako trakzio-proiektu kolaboratibo batean integratu ahal izateko:

a) Zeharkako trakzio-ekimenerako ezarrita dauden erronkei eta helburuei egiten zaien ekarpena. 5 puntu (pisua = 1).

b) Proposatutako I+G+Bren lehentasunezko orientazioa eta kalitatea. 5 puntu (pisua = 1,3).

c) Proiektuaren eragin sozioekonomiko potentziala eta emaitzen transferentzia. 5 puntu (pisua = 1).

d) Partzuergo orekatua eta ezagutza- eta balio-kateko eragileen parte-hartzea (unibertsitateak, teknologia- eta ikerketa-zentroak, enpresak, Euskal Osasun Sistemako entitateak, etab.). 5 puntu (pisua = 0,5).

e) Genero-ikuspegia txertatzea. 5 puntu (pisua = 0,2).

2.– Zeharkako trakzio-proiektu kolaboratibo batean integratzeko hautagai izateko, eskabideak 12 puntu edo gehiagoko guztirako nota haztatua ($N_{GH} = \sum \text{Puntuazio}_i * \text{Pisua}_i$; $i = a, b, c, d, e$) lortu beharko du, eta 2 puntuko gutxieneko nota irizpide guztietan, 2. irizpidean izan ezik, non gutxienez 3 puntuko nota eskatuko baita. Irizpide bakoitzaren puntuazioa sistema honen arabera egingo da: 0 – Proiektuak ez dio irizpideari heltzen edo ezin da ebaluatu informazio nahikorik ez duelako; 1 – Ez nahikoa; 2 – Nahikoa; 3 – Ondo; 4 – Oso ondo; 5 – Bikain. Bitarteko puntuazioak eman ahal izango dira: 1,5; 2,5; 3,5 eta 4,5.

3.– Eskabideak, ebaluatu ondoren, tamaina eta irismen handiagoko proiektuetan (zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboetan) sartu ahal izango dira. Horretarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Proposatutako proiektu bakoitzean burutu beharreko ikerketa- eta garapen-jardueren osagarritasuna.

b) Proiektu bakoitzaren irismenean bete beharreko helburuen arteko sinergiak eta/edo osagarritasunak.

c) Proiektuaren partzuergoa handitzea, ezagutza- eta balio-kateko entitate gehiago integratuz eta ikerketaren, garapenaren edo transferentziaren zenbait arlotan eragile jakin batzuen falta estaliz.

4.– Proposatutako proiektu eskatzaileak nahikoa garrantzi eta irismen badu, zeharkako trakzio-proiektu kolaboratibo bat eratu ahal izango du bere kabuz. Bakarka behar besteko garrantzirik ez duten proiektuak nahitaez sartu beharko dira zeharkako trakzio-proiektu kolaboratibo batean, dirulaguntza eskuratu ahal izateko.

13. artikulua.– Ebazpen-proposamena, onartutako proiektuak.

1.– Ebaluazio-organoek ezarritako irizpideen arabera baloratuko dituzte aurkeztutako eskabideak, eta prozedura ebazteko proposamen arrazoituak egingo dituzte.

2.– Ebazpen-proposamen arrazoituek honako hauek jasoko dituzte, gutxienez:

a) Onartzeko proposatzen diren zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboen zerrenda; horietako bakoitzari dagokionez informazio hau jasoko da: hura osatzen duten proiektuak, izenburua, entitate eskatzailea, ebaluazioan lortutako puntuazioa, onartutako aurrekontua eta emandako dirulaguntza.

b) Laguntzak arautzen dituen dekretuaren eta deialdiaren baldintzak ez betetzeagatik ezetsi beharreko eskabideen zerrenda, ezesteko proposamenaren arrazoiekin eta, hala badagokio, ebaluazioan lortutako puntuazioarekin batera.

14. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Aurkeztutako eskabideak ebazpen bakar batean ebatziko dira. Ebazpen hori Lehendakariaren Idazkaritza Nagusiko titularrak emango du, dagokion ebaluazio-organoak proposatuta. Ebazpen horrek, gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

a) Onartutako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboen zerrenda, horietako bakoitza osatzen duten proiektuak adierazita, eta, beraz, eskabidea onartu dela adierazita. Horietako bakoitzari dagokionez informazio hau emango da: izenburua, entitate eskatzailea, ebaluazioan lortutako puntuazioa, onartutako aurrekontua, emandako dirulaguntza eta gauzatzeko epea.

b) Ezetsi beharreko proiektuen eskaeren zerrenda, ezesteko proposamenaren arrazoiekin eta, hala badagokio, ebaluazioan lortutako puntuazioarekin batera.

2.– Ebazpena emateko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabete da, deialdia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, abuztua alde batera utzita, hilabete hori baliogabetzat jotzen baita ondorio horietarako. Epe horretan berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, laguntza-eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.9 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori),

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

3.– Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, entitate interesdunek berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorriz, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeari jarraikiz.

4.– Ebazpena bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie entitate eskatzaile guztiei, hartatik eragotzi gabe entitate onuradunen, diruz lagundutako proiektuen eta emandako laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, denek horren berri izan dezaten.

5.– Entitate eskatzaileari baiespen-ebazpena jakinarazten zaion egunetik hamabost egun natural igaro ondoren, emandako laguntzari berriaz uko egiten zaiola jakinarazten ez bada, ondorio guztietarako ulertuko da entitate horrek laguntza emateko ebazpena onartu duela.

15. artikulua.– Laguntza ordaintzea eta justifikatzea.

1.– Laguntzaren zenbateko osoa bi ordainketatan ordainduko da. Lehenengo ordainketa, laguntzaren % 50era artekoa, laguntza ematen den unean, ebazpena argitaratu eta laguntza berriaz edo isilbidez onartu eta gero, dekretu honen 14.5 artikuluan ezarritako epean.

2.– Bigarren eta azken ordainketa, proiektuaren diseinua amaitu eta entitate eskatzaileak laguntzaren justifikazio-agiriak aurkeztu eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza elektronikoa eskuragarri egongo diren ereduak erabiliz aurkeztu ere. Gutxienez, dokumentazio hau aurkeztuko du:

a) Onartutako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboaren diseinuan egindako jardueren memoria, barnean hartuta entitateak egindako gastuen eta lortutako emaitza nagusien laburpena eta proiektuari jarraipena emateko aurreikusitako jarduerena.

b) Garatutako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboaren azken diseinua jasotzen duen memoria. Hala badagokio, beste finantzaketa-programa batzuetara aurkezteko landu diren txosten edo memoria gehigarriak ere aurkeztu ahal izango dira, osagarri gisa.

c) Entitate eskatzaileak proiektuaren diseinuan egindako gastuen ziurtagiria, langile propioen zuzeneko kostua, entitatearen zeharkako kostuak eta azpikontratazio-gastuak banakatuta, eta oinarritzko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko jardueri dagozkien gastuak zehaztuta. Aipatutako azpikontratazio-gastuak merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo administrazio-eraginkortasuna duten jatorritzko fakturen eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuen bidez egiaztatuko dira. Egiaztapena faktura elektronikoen bidez ere egin ahal izango da.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinaren bidez entitatearen legezko ordezkariak bere gain hartuko baitu proiektu-proposamenerako beharrezkoak diren gastuen justifikazioa entitatearen kontabilitate-arauei eta dekretu honetan ezarritako arauei jarraituz egiteari dagokion ardura.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinaren bidez entitateak bere gain hartuko baitu beste administrazio edo ente publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako laguntzen edo dirulaguntzen zerrenda aurkezteko betebeharra.

3.– Justifikatzeko gehieneko epea 12 hilabete izango da, laguntza emateko ebazpenaren egunetik zenbatzen hasita.

4.– Justifikazio-agiriak ez badaude behar bezala beteta, edo eskatutako gainerako dokumentazioa aurkezten ez bada, entitate eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko 10 egun balioduneko epean. Entitateak akatsa zuzentzen ez badu, ulertuko da entitate onuradunak ez dituela betebeharrak bete, ez da bigarren ordainketa egingo, eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasiko da.

5.– Justifikatutako gastua txikiagoa bada laguntza emateko ebazpenean onartutako aurrekontua baino eta entitateak diruz lagundutako proiektua gauzatu badu, emandako zenbatekoa doitu egingo du ebazpen-organoak, dagokion ebazpenaren bidez.

6.– Entitate onuradunei dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozedura oro.

16. artikulua.– Dirulaguntzen konkurrentzia.

1.– Entitate onuradunek jakinarazi egin beharko dute beste administrazio edo ente publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako laguntzak edo dirulaguntzak jaso dituztela. Xede bererako jasotako dirulaguntzen zenbateko osoak ezin izango du jardueraren kostu osoa gainditu. Ezarritako muga gainditzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluko 12. apartatuan araututakoaren arabera.

2.– Dekretu honetan ezarritakoaren arabera entitate onuradunek aldi berean jaso ditzaketen dirulaguntzak zehazteko, kontuan hartuko dira Europar Batasunean horri buruz indarrean dauden arauak, eta, bereziki, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 8. eta 25. artikuluetan ezarritakoa.

17. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Entitate onuradunek, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan araututako betebeharez gain, honako hauek bete beharko dituzte:

a) Laguntzaren zenbateko osoa onartu den zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboa diseinatzeko erabiltzea.

b) Diruz lagundutako proiektuaren jarduerak finantzaketa publikoa izan dutela jakinarazteko publizitate egokia egitea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorren 18.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboaren egoerari buruzko informazioa ematea, Eusko Jaurlaritzak hala eskatuz gero, proiektuak irauten duen bitartean eta laguntza eman eta hiru urte igaro arte.

d) Fakturak gordetzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eskura edukitzea lau urtez, justifikazio-agiriak aurkezteko epea igaro denetik zenbatzen hasita.

e) Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eskatzen duten informazioa ematea, laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eginkizunetan dihardutelarik.

f) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko martxoaren 3ko 1/2022 Legean ezarritako betebeharrak betetzea.

g) Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 38.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan ezarritako betebeharrak betetzea.

18. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Entitate onuradunek dekretu honetan edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, galdu egingo dute emandako laguntza jasotzeko eskubidea, eta, hala badagokio, ordura arte jasotako laguntzen zenbatekoa itzuli beharko diote Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, bai eta dirulaguntzak itzultzeagatik dagozkion berandutze-interesak ere, kontuan hartuta zer dagoen araututa itzulketei dagokienez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan.

2.– Dirulaguntzei buruzko legeria orokorrean ezarritakoez gain, honako hauek ere hartuko dira ez-betetzetzat:

a) Dekretu honetan edo laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak ez betetzea.

b) Laguntzaren xede den proiektua egiteko edo justifikatzeko ezarritako epeak gainditzea, betiere epeak aldatzeko edo luzatzeko baimenik ez badago.

c) Dekretuan edo laguntza ematean aurreikusitako edozein kontrol-neurri ukatzea edo oztopatzea.

d) Proiektuaren beste edozein desbideratze edo emandako laguntzarekin lotutako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

3.– Entitate onuradunaren betetze-maila nabarmen hurbiltzen bada erabateko betetze-mailara, eta entitate onuradunak zalantzarik gabe konpromisoak betetzeko jardun bat egiaztatzen badu, dirulaguntzaren zati bat ordainduko zaio, edo, hala badagokio, zati bat itzuli beharko du, eta egingandako jarduerak guztizkoarekiko duen proportzioa zehaztuko du kalkulua egiteko. Nolanahi ere, entitate onuradunak kobratzeko eskubidea izango duen zenbateko partziala bat etorriko da emandako dirulaguntzatik benetan eta behar bezala justifikatutako zenbatekoarekin, betiere justifikazioa egiaztatu eta entitate emaileak hura onartu eta gero.

4.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plana bultzatu eta koordinatzeko eskumena duen organoko titularrak hasi eta ebatziko du ez-betetzeen espedientea.

19. artikulua.– Laguntzak kontrolatzea.

1.– Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiak aldi-aldi aztertu ahal izango du jarduketak dekretu honen helburuetara egokitzen diren, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak finkatu ahal izango ditu, eta egoki iritzitako egiaztapenak egin ahal izango ditu, laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko. Gainera, hala eskatzen badu, laguntzaren frogagiri guztiak eskuratu ahal izango ditu.

2.– Jarduketan garapena egiaztatu behar denean, entitate onuradunak bermatu eta erraztu egingo du ekintzaren tokirako eta higiezinatarako irispidea, bai eta dagozkion liburu, kontu eta justifikazio-agirietarako irispidea ere.

3.– Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduari lotutako laguntzak argitaratzeari eta haiei buruzko informazioa emateari dagokionez, laguntza-programa hau kudeatzeko ardura duten agintariek konpromisoa hartzen dute Erregelamenduaren 9. artikuluan zehaztutako betebeharrak zorrotz errespetatzeko eta betetzeko.

4.– Era berean, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 11. artikuluan b) letran ezarritakoaren arabera, agintari arduradunek urteko txosten bat egingo dute, laguntza-araubide honen aplikazioa eta garapena zehazteko.

5.– Gainera, programa honetan, laguntzaren eragin sustagarria bermatzeko, entitate eskatzai-leak eskabidea aurkeztu eta gero hasten diren proiektuek soilik jaso ahal izango dituzte laguntzak, dekretu honen 2.2 artikuluan jasotzen den moduan.

20. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

Laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzen badira, eta, nolana ere, beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu batzuetatik beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jasotzen badira, edota, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, laguntza emateko ebazpena aldatu egingo da, betiere dekretu honetan ezarritako gutxieneko baldintzak eta xedea betetzen badira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.4 artikuluan araututakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu honetan aurreikusitako azgain, honako hauek aplikatuko zaizkie laguntzei: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa, eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko urriaren 11n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

2022ko urriaren 24a, astelehena

URRIAREN 11KO 118/2022 DEKRETUAREN ERANSKINA

ZEHARKAKO TRAKZIO-EKIMENEN ERRONKAK ETA HELBURUAK

A1.1.– ZAHARTZE OSASUNTSUA	
Erronka orokorra	Helburu orokorra
Bizi-itxaropen osasungarria handitzea, adinekoek autonomia pertsonala eta ahalik eta bizi-kalitate onena izan dezaten.	Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena 5 urte luzatzea 2030erako, batez beste.
Erronka espezifikoak	1.– Zahartzea nola gertatzen den ulertzea, hari lotutako gaixotasunak prebenitzeko, atzeratzeko eta tratatzeko.
	2.– Arreta sanitarioa eta soziosanitarioa hobetzea, adinekoen osasun- eta zaintza-premiak ulertuta.
	3.– Adinekoen beharretan oinarritutako eta osasuna prebenitzera eta sustatzera bideratutako ingurune komunitarioa, soziala eta kulturala sustatzea.
	4.– Adinekoen gizarteratzea eta parte-hartze soziala sustatzea, bai eta bizi-ohitura osasungarriak ezartzea ere.
	5.– Zahartzeari lotutako aukerak aprobetxatuko dituen ekonomia bultzatzea (Silver Economy).
	Zeharkako erronka: genero-ikuspegia txertatzea aurreko erronka espezifiko guztietan, zahartze osasungarriak eragin handiagoa duelako eta arrazoi desberdinak dituelako emakumeengan
Erronka espezifikoa	1.– Zahartzea nola gertatzen den ulertzea, hari lotutako gaixotasunak prebenitzeko, atzeratzeko eta tratatzeko.
Helburu espezifikoak	Zahartzearen etiopatologiari eta horri lotutako gaixotasunei buruzko ezagutza zientifiko berria sortzea. Zahartzearen historia naturala.
	Zahartzeari eta horri lotutako gaixotasunei lotutako diagnostiko-sistema berriak garatzea.
	Zahartzearen eremuan medikuntza pertsonalizatua aplikatzea ahalbidetuko duten markatzaileak garatzea
	Adineko pertsonak bizitza-ohitura osasungarriak har ditzatela erraztuko duten elikagaiak eta beste produktu eta zerbitzu batzuk garatzea.
Erronka espezifikoa	2.– Arreta sanitarioa eta soziosanitarioa hobetzea, adinekoen osasun- eta zaintza-premiak ulertuta
Helburu espezifikoak	Pertsonengan zentratutako arreta soziosanitarioko eredu integral berriei buruzko ikerketa, zainketa komunitarioen eta egoitzetako zainketen continuumean alternatiba berriak txertatuta.
	Esparru soziosanitarioko profesionalen gaikuntza hobetzea eta lanbide-profil berriak garatzea.
	Osasuna eta zaintza monitorizatzen dituzten ekipamenduak eta gailuak garatzea, zaintzaileei arreta eskainiz.
	Gizarte- eta kultura-ekintzak ezartzea arreta soziosanitarioko eredu berrietan.

2022ko urriaren 24a, astelehena

A1.1.– ZAHARTZE OSASUNTSUA	
Erronka espezifikoa	3.– Adinekoen beharretan oinarritutako eta osasuna prebenitzera eta sustatzera bideratutako ingurune komunitarioa, soziala eta kulturala sustatzea.
Helburu espezifikoak	Adinekoen autonomia erraztuko duten eta bizi-kalitatea hobetuko duten hiriak eta auzoak diseinatzea, adinekoen ahalduntzea eta erantzunkidetasuna erraztuz.
	Adinekoen premietara bideratutako etxebizitzak diseinatzea, autonomia areagotzea eta bakardadearen prebentzioa errazteko.
	Hiri-ingurunerako eta etxebizitzetarako ekipamendu eta irtenbide adimendunak eta domotizaziokoak diseinatzea.
	Kulturak zahartzean duen eraginari buruzko ikerketa.
Erronka espezifikoa	4.– Adinekoen gizarteratzea, ekitatea eta parte-hartze soziala sustatzea, bai eta bizi-ohitura osasungarriak ezartzea ere.
Helburu espezifikoak	Jarduera fisikoa eta zahartze osasuntsua bultzatuko duen elikadura sustatzea.
	Adinekoen inklusioa eta parte-hartzea erraztuko duten teknologia eta tresna digitalak bultzatzea.
	Ohitura osasungarriak eta osasuna zaintzeko erantzunkidetasuna ezartzen lagunduko duten aldaketa kulturaletan sakontzea.
	Bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea.
Erronka espezifikoa	5.– Zahartzeari lotutako aukerak aprobetxatuko dituen ekonomia bultzatzea (Silver Economy).
Helburu espezifikoak	Ongizateari eta aisialdiari lotutako negozio-eredu jasangarri berriak garatzea.
	Zahartzeari lotutako ekintzailtza eta industria-sarearen garapena aktibatzea.

2022ko urriaren 24a, astelehena

A1.2.– MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA	
Erronka orokorra	Helburu orokorra
Mugikortasun jasangarriko eredu berria eta berotegi-efektuko gasen emisio txikiko garraioa sustatzea, ibilgailu elektrikoari lotutako balio-katea bultzatuz, gaitasun industrialetan eta zientifiko-teknologikoetan oinarrituta.	Basque Green Deal-en ildotik, 2030ean Euskadin berotegi-efektuko gasen emisioa % 45 murrizten laguntzea, Europak klimaren neutraltasuna lortzeko duen erronkarekin bat etorrituz, hemendik 2050era garraioetik datozen isuriak % 90 murriztuz.
Erronka espezifikoak	1.– Garraioaren elektrifikaziotik eratorzen diren eta balio-kate globalari eragiten dioten produktu, prozesu eta negozio-ereduen aldaketa erradikalei aurre egitea Euskal Autonomia Erkidegoan.
	2.– I+G+B egitea, ibilgailu elektrikoarekin lotutako produktu, teknologia, material eta ekoizpen-prozesu berriak Euskal Autonomia Erkidegoko balio-katean integratzeko.
	3.– Bateriak biltegitratzeko teknologia berriak garatzea, karga-intentsitate handiagoa, pisu eta kostu txikiagoa eta metal arraroen erreserbekiko mendekotasun txikiagoa dakartenak.
	4.– Hiri-mugikortasun adimenduneko ekosistemak garatzea, ibilgailu elektrikoa, karga-sistemak, banaketa-sareak, komunikazio-sistemak eta mugikortasuna eta zibersegurtasuna kudeatzeko zerbitzuak barne hartzen dituztenak.
	5.– Ekonomia zirkularraren eta ekoberrikuntzaren aplikazioa sustatzea hiri-mugikortasunean, lehengaien kontsumoa eta energia-eraginkortasuna hobetzeko.
Erronka espezifikoa	1.– Garraioaren elektrifikaziotik eratorzen diren eta balio-kate globalari eragiten dioten produktu, prozesu eta negozio-ereduen aldaketa erradikalei aurre egitea Euskal Autonomia Erkidegoan.
Helburu espezifikoak	Fabrikazioaren kontzeptua aldatzea, eredu bakar baterako erreferentzia kopuru handiagoa kudeatzeko gai izateko, ibilgailu elektrikoaren eredu bakoitzeko produktuen gehikuntzagatik, bulkada-sistemen barietateagatik eta lotutako produktu berriengatik.
	Portfolioan balio-katerako erabat berria den garapen- eta fabrikazio-prozesu bat adierazten duten ibilgailu elektrikoari lotutako produktuak sartzeko beharra.
Erronka espezifikoa	2.– I+G+B egitea, ibilgailu elektrikoarekin lotutako produktu, teknologia, material eta ekoizpen-prozesu berriak Euskal Autonomia Erkidegoko balio-katean integratzeko.
Helburu espezifikoak	Gaitasun zientifiko-teknologikoak eta industrialak ibilgailu elektrikoaren erronkaren inguruan lerrotzea.
	I+G+B eta erakustaldi proiektuak babestea, fabrikazio-prozesu berriak eta karbonoaren aztarna murrizten laguntzen duten material berri arinagoak eta seguruagoak diseinatzeko eta garatzeko.

A1.2.– MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA	
Erronka espezifikoa	3.– Bateriak biltegitratzeko teknologia berriak garatzea, karga-intentsitate handiagoa, pisu eta kostu txikiagoa eta metal arraroen erreserbekiko mendekotasun txikiagoa dakartenak.
Helburu espezifikoak	Beyond Li teknologia berriak garatzea.
	Egoera solidoko gelaxka-baterien ekoizpena bultzatzea.
	Hidrogeno-pilen garapen teknologikoa.
	Bateria elektrokimikoen bizi-itxaropena handitzea.
	Bateriei bigarren bizitza bat ematea (Second life).
Erronka espezifikoa	4.– Hiri-mugikortasun adimenduneko ekosistemak garatzea, ibilgailu elektrikoa, karga-sistemak, banaketa-sareak, komunikazio-sistemak eta mugikortasuna eta zibersegurtasuna kudeatzeko zerbitzuak barne hartzen dituztenak.
Helburu espezifikoak	Ibilgailu elektrikoa kargatzeko sistemak, energia berriztagarriak eta biltegitratzea integratzen dituzten erakustaldi-ekimenak bultzatzea, euskal enpresen gaitasunak erakusteko.
	Ibilgailu elektrikoak azkar eta ultra-azkar kargatzeari eta horiek sare elektrikoan integratzeko kontrol eta kudeaketari lotutako ekipamendu eta azpiegituretan eskaintza berritzaile eta bereizgarria garatzen laguntzea.
	Hiri barruko eta hiriarteko garraio elektriko publikoaren sarearen azpiegitura hobetuko duten sistemak eta ekipamenduak garatu eta ezartzea, sistema multimodala sustatuz eta garraio partekatua barne hartuz.
	Sistemari eta ibilgailuaren eta sistema elektrikoaren arteko interakzioari aplikatutako zibersegurtasuna bultzatzea.
	Mugikortasun elektrikoa kudeatzeko komunikazio-sistema eta zerbitzu berriak garatzea, herritar guztiek garraioarekin zerikusia duten informazio-sistema digitaletara irispide hobea izan dezaten, eta egungo arau-esparrua egokitzea.
Erronka espezifikoa	5.– Ekonomia zirkularraren eta ekoberrikuntzaren aplikazioa sustatzea hiri-mugikortasunean, lehengaien kontsumoa eta energia-eraginkortasuna hobetzeko.
Helburu espezifikoak	Ekonomia zirkularrean oinarritutako irtenbide berritzaileak garatzea, garraioaren eta mugikortasunaren sektorean lehengaien kontsumoa murrizteko.
	Ibilgailuak eta horien osagaiak txandakatzea eta birziklatzea erraztuko duten prozesu eta sistema berriak sustatzea.
	Plastikoen eta konpositeen erabilera handiagoaren aldeko remanufacturing-aren garrantzia bultzatzea.
	Fabrikazio-prozesuetan energia-eraginkortasuna hobetzeko ekoberrikuntzako printzipioak eta teknologiak aplikatzea.

2022ko urriaren 24a, astelehena

A.1.3.– EKONOMIA ZIRKULARRA	
Erronka orokorra	Helburu orokorra
Baliabideen erabilera eraginkorragoa ekarriko duen ekonomia bateranzko trantsizioa bultzatzea Euskadin, ekoizpen- eta kontsumo-eredu berria lortzera bideratutako berrikuntzaren bidez.	2030erako, produktibitate materiala % 30 handitzea, material zirkularraren erabilera-tasa % 30 handitzea eta BPGd-aren araberako hondakinen sorkuntza-tasa % 30 murriztea.
Erronka espezifikoak	1.– Balio-katean zehar energiaren eta lehengaien kontsumoa optimizatzea, lotutako material, fabrikazio-prozesu, parametro, ekipamendu, produktu eta zerbitzu aurreratuen berrikuntzarekin lotuta.
	2.– Eragileen artean kontsumo zirkularraren eredua sustatzea eta negozio-eredu berriak eta zirkularragoak bultzatzea.
	3.– Bioekonomia sustatzea funtsezko sektore ekonomikoak eraldatzeko, lurraldean dauden baliabide biologikoetan oinarritutako materialen, produktuen eta negozio-eredu berrien belaunaldi berri batetik abiatuta.
	4.– Hondakinen sorrera minimizatuko duen ekoizpen-ereduaren aldaketarako trantsizioa bultzatzea, berrikuntza, baliabideen erabileran prozesuen eraginkortasunaren hobekuntza eta materialen, produktuen eta prozesuen ekodiseinua sustatuz.
	5.– Elikagai-xahutzea murriztea, hondakinen sorrera erdira murriztu arte.
Erronka espezifikoa	1.– Balio-katean zehar energiaren eta lehengaien kontsumoa optimizatzea, lotutako material, fabrikazio-prozesu, parametro, ekipamendu, produktu eta zerbitzu aurreratuen berrikuntzarekin lotuta.
Helburu espezifikoak	I+G+B sustatzea material, prozesu, produktu eta zerbitzu aurreratu eta jasangarrietan.
	Eraikitako parkearen birgaitze energetiko jasangarria sustatzea, material birziklatuak erabiliz eta hondakin propioak kudeatuz.
	Euskal ekonomia zirkularrago bateranzko trantsizioa bultzatzeko behar diren gaitasun eta profil profesionalak garatzea.
	Produktuen bizitza baliagarria luzatzea eta lehengaien kontsumoa eta hondakinen sorrera murriztea.
	Bigarren mailako lehengaien erabilera areagotzea.
Erronka espezifikoa	2.– Eragileen artean kontsumo zirkularraren eredua sustatzea eta negozio-eredu berriak eta zirkularragoak bultzatzea.
Helburu espezifikoak	Ekonomia zirkularrean oinarritutako negozio-eredu berriak garatzea: energia-eraginkortasuna, baliabideen eta hondakinen berreskurapena eta balorizazioa.
	Dauden balio-kateak birmoldatzea, prozesuak bioekonomia zirkularrera eralda daitezten.
	Materialetan hain intentsiboak ez diren negozio-eredu berriak garatzea, produktu- eta zerbitzu-eskaintza integratuen bidez, IKTak txertatuz eta ekonomia kolaboratiboko eredu berriak sustatuz.
	Produktuen eta prozesuen diseinu birtuala eta simulazio konputazionala, industriako hondakin-produktuak berreskuratzeko eta balorizatzeko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko.
	Hiri-prozesuetan, naturan oinarritutako konponbideen erabilera areagotzea, ekonomia zirkularra sustatzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko. Hiri-espazioen diseinuan eragina duen arau-esparrua egokitzea.
	Lehentasunezko eremuetan (packaging-a eta biomaterialak) balio erantsi handiagoko produktu eta soluzio berrien garapena sustatzea.

A.1.3.– EKONOMIA ZIRKULARRA	
Erronka espezifikoa	3.– Bioekonomia sustatzea funtsez–ko sektore ekonomikoak eraldatzeko, lurraldean dauden baliabide biologikoetan oinarritutako materialen, produktuen eta negozio-eredu berrien belaunaldi berri batetik abiatuta.
Helburu espezifikoak	Baso-bioekonomia bultzatzea, ekoizpen-prozesuetan material berriztagarriak txertatzeari arreta berezia ipiniz, gaur egun erabiltzen diren material berriztaezinen ordeiz.
	Zuraren balio-katea sustatzea, haren produktibitatean, eraldaketan eta kontserbazioan hobekuntzak sustatuz eta baliabide energetiko gisa dituen aukerak indartzuz – biomasa.
	Ikerketa, berrikuntza eta ezagutza aurreratuaren sorkuntza bultzatzea, gaitasun zientifiko-teknologikoak indartzeko bioekonomiaren eremuan.
Erronka espezifikoa	4.– Hondakinen sorrera minimizatuko duen ekoizpen-ereduaren aldaketarako trantsizioa bultzatzea, berrikuntza, baliabideen erabileran prozesuen eraginkortasunaren hobekuntza eta materialen, produktuen eta prozesuen ekodiseinua sustatuz.
Helburu espezifikoak	Produkzioarako baliabide material gutxiago behar duten produktu berriak garatzea, produktuen eta eraikinen ekodiseinuaren printzipioak eta teknikak aplikatuz.
	Negozio-eredu berriak eta ekoizpen-prozesuetan aldaketak sustatzea, hondakinen berrerabiltze-, birziklatze- eta berreskuratze-tasa handitzeko.
	Plastikoak birziklatzeko metodo eta prozesu berriak garatzea edo daudenak hobetzea, kostuak murrizteko eta emaitzak hobetzeko.
	Produktu eta ekoizpen-sistema moldagarrien bizitza baliagarria luzatzea.
	Eraikuntzako egitura eta elementuetako hainbat industria-prozesutan sortutako azpiproduktuen berrerabilera bultzatzea, eraikuntzari eta obra zibilari aplikatuta.
Erronka espezifikoa	5.– Elikagai-xahutzea murriztea, hondakinen sorrera erdira murriztu arte.
Helburu espezifikoak	Nekazaritzako elikagaien balio-katearen ekoizpen-prozesuak berritzea, produktuak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko eta sortutako hondakinak murrizteko.
	Elikagai-soberakinak berrerabiltzeko prozesuak hobetzea, elikagaien segurtasuna bermatuz beti.
	Hondakin organikoak birziklatzeko teknologia eta prozesu berriak garatzea, ekonomiara itzultzeko eta bigarren erabilera bat emateko, hala nola biogasa eta/edo konposta ekoizteko.